

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foruzaingoak Ertzaintzaren Akademiak antolatutako lehen tiro-txapelketa irabazi du

Foruzaingoak Ertzaintzaren Akademiak antolatutako lehen tiro-txapelketa irabazi du

Miércoles, 10 de agosto de 2011

Foruzaingoaren tiro-taldeak irabazi du Ertzaintzaren Akademiak antolatutako lehen tiro-txapelketan, banakako nahiz taldekako modalitateetan.

Txapelketa uztailaren 27 an egin zen Arkauten (Araban), eta bestelako polizia-taldeen parte hartu zuten, hala nola Ertzaintzak berak, Guardia Zibilak, Espainiako Polizia Nazionala, Gasteizko Polizia Lokala, Armada eta Euskal Herriko Tiro Olinpiar Federakuntza.

Taldekako tituluaz gain, nabarmendu behar da Foruzaingoaren taldeko kapitainak, Trafiko eta Bide Segurtasun Saileko inspektoreordeak, banakako lehen postua ere lortu zuela txapelketan. Guztira, hiru ariketa izan ziren, eta gutxienez, 56 tiro egin ziren.

Foruzaingoaren tiro-taldea

Foruzaingoaren taldea 1990. urtetik garatzen du jarduera. Hasiera batean Foru Erkidegoaren barruan antolatutako txapelketetan parte hartu zuen –Foruzaingoaren beraren txapelketan eta beste polizia batzuek antolatutako txapelketetan-, eta gero, maila handiagoko txapelketetan parte hartzen hasi ziren. Horrela, 1992. urtean Tiro Ibilbideen Europako I. Txapelketan parte hartu zuen, Katalunian.

Urte horretatik aurrera, bere kirol-jarduera nagusia tiro ibilbideen modalitatean espezializatuta dago, IPSC delakoan. Espezialitate hori Espainiako Tiro Olinpiar



Foruzaingoaren tiro-taldeko kideak.



Federakuntzak
aintzatetsita du, eta

Tiratzailea Arkauten egindako lehen tiro-
txapelketan.

urteko eta maila nazionaleko egutegia du. Gehienbat, klubeko kideek egiten dute duela zenbait urte.

Gogoratu behar da Foruzaingoak hainbat [sari](#) irabazi dituela azken urteetan. Bestiak beste, taldekako lehen postua Espainiako Tiro Ibilbideen Txapelketan, produkzioaren modalitatean, Espainiako Tiro Olinpiar Federakuntza, Lleidan, 2007. urtean egindakoa, edo banakako lehen postua tiro polizialeko modalitatean, Europako polizia eta suhiltzaileen jokoetan, EUROPOLYB 2008, Pontevedran egindakoa.